ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko maiatzaren 20a, astelehena • 58 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MENAGARAI-BEOTEGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Baso aprobetxamendurako enkante publikoa

Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarrak 2019ko irailaren 13an egindako kontzeju bi-Ikuran hartutako erabakiaren bidez, eta Arabako Foru Aldundiaren beharrezko baimenarekin, baso aprobetxamendu honen enkante publikoa iragartzen da.

Lotea: 4515 intsinis pinu; erabateko mozketa; bolumena: 4133 metro kubo material; lizitazioa: 186.264 euro, BEZa aparte.

1. Erakunde esleitzailea, kontratuaren xedea eta lizitazio oinarria:

Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.

Lote bakarra; onura publikoko 40 mendia; dermioa: Mastondo; lurzatiak: 571 (9.1-6.4 egikaritze unitatea) eta 573 (9.2 egikaritze unitatea).

2. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

Izapidetzea: arrunta.

Prozedura: irekia.

Esleitzeko era: enkante publikoa.

3. Lizitazio oinarria:

Lote bakarra: 186.264 euro.

4. Behin-behineko eta behin betiko bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

Behin betikoa: esleipenaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

5. Ordainketa baldintzak:

Administrazio klausula berezien agirian adierazitakoak.

6. Aprobetxamendurako epea:

Esleipena jakinarazten denetik urtebete.

7. Iragarki gastuak:

Esleipendunak ordainduko ditu.

8. Agiriak eta lizitazio baldintzei buruzko argibideak eskuratzeko:

Hemen daude ikusgai administrazio klausulen agiriak eta aprobetxamendua arautzen duten baldintza agiriak:

• Administrazio batzar honen kontratatzailearen profila.

• Aiarako udaletxea. Eliza auzoa, 2; 01476 Arespalditza; telefonoa: 945 399013; faxa: 945 399331 info@aiarakoudala.com; astelehenetik ostiralera 9:30tik 14:00etara, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

9. Eskaintzak aurkeztea:

Eskaintzak aurkezteko lekua eta eguna: Eskaintzak, batera aurkeztuko diren bi gutunazal itxian, Aiarako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, 9:30etik 14:00etara arte, astelehenetik ostiralera, hamabost eguneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera. Eskaintzak aurkezteko epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea izanez gero, epea hurrengo egun balioduneko 14:00etara arte luzatuko da.

Eskaintza eredua eta aurkeztu beharreko agiriak: lizitatzaileek administrazio klausula berezien agirian eta baldintza agirian jasotzen den eskaintza ereduaren arabera aurkeztuko dituzte eskaintzak.

10. Gutun azalak irekitzea:

Goizeko 10:00etan, Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarraren egoitzan (San Pedro auzoa zenbakirik gabe, San Pedro elizaren ondoan), eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren laugarren egun baliodunean (Larunbata ez).

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Menagarai-Beotegi, 2019ko maiatzaren 6a

Lehendakaria
MARÍA DEL CARMEN CAMPO URQUIJO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.05.20 05:31:16 Z